

# Zestoako burdinoletako euskal terminologia (1519-1544)

IÑAKI AZKUNE MENDIA

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Adiskide Numerarioa

## *Resumen:*

*El trabajo señala que en Zestoa durante el siglo XVI las manifestaciones escritas eran casi todas en castellano y algunas de la iglesia en latín. Pocas veces aparecía el euskara en los contratos.*

*Se estudian aquí los términos usados en euskara en las ferrerías de Zestoa.*

*Palabras clave: Zestoa. Euskara. Burdinola ...*

## *Laburpena:*

*Lan honetan adierazten den moduan, XVI. mendean Zestoan gaztelaniaz egiten ziren idatzizko agiri historikoak, eta elizako batzuk latinez. Euskara oso gutxitan agertzen zen kontratuetan.*

*Hemen, Zestoako burdinoletan erabiltzen ziren euskarazko terminoak aztertzen dira.*

*Hitz gakoak: Zestoa. Euskara. Burdinola...*

*Summary:*

*This piece of work indicates that the declarations written in Zestoa during the 16th century were nearly all in Castilian Spanish and some ones of the church in Latin. Basque seldom appeared in contracts.*

*The terms used in Basque in the iron works of Zestoa are studied here.*

*Key words: Zestoa. Euskara. Burdinola...*

Zestoako XVI. mende hasierako agiri historikoak ia erabat Gaztelako erromantzez idatzita daude, eta aleren bat edo beste (elizari dagozkionak) latinez. Hala ere, noizbehinka erdarazko testuan tartekaturik euskarazko hitzak ageri dira, bai basogintzakoak, bai nekazaritzakoak eta bai beste zenbait arlotakoak, baina batez ere burdingintzakoak.

Argi eta garbi ikusten da burdinolei buruzko kontratu eta agirietan gaztelaniazko testuetan euskarazko hitz teknikoak maiz tartekatzen zituztela, eta gure ustetan gaztelaniazko ordainik orduan ez zegoelako gertatzen zen hori.

Guk hemen Zestoako burdinolei buruzko 1519-1544 bitarteko eskuizkribuak aztertu ditugu, baina barne hartuz Arroako burdinolak (1852. urtera arte Arroa Debako parte izan arren) eta Aiako partean Zestoako Altzolarats jauregiko jaunek zuten burdinola. Zestoarekin muga eginez Aiako partean Olalden bazegoen ere, jabeak Zestoako auzotar ziren eta burdinolari buruzko ia kontratu eta agiri guztiak Zestoan egin zituzten.

Erabilitako agirietan Zestoako honako burdinola hauek aipatzen dira: Iraetakoa, Bekola, Lasakoa, Altzolarats jauregikoa, Liliko ola eta olatxoa, Narruondokoa eta Arroakola.

Ondoren, jasotako hitz teknikoen zerrenda erakusten dugu, ahal izan dugunean hitz bakoitzaren definizioa (geure zalantza eta guzti) emanez eta bakoitza zein iturritatik jasoa den, zenbakiz identifikatuta, ondorengo oharren atalean emanez. Hainbat hitzen esanahia ez dakigula ere adierazi dugu bertan.

Azkenik, iruditan hemen aipatutako hitz batzuk ere kokatu ditugu, bakoitza bere letraren edo letra parearen bidez.

**Hitz teknikoen definizioak**

(A) agoa: *agoa*...<sup>1,2,3,4</sup>

Sutegiko labean egur-ikatzarekin burdin mea urtuta, hondoan (arragoan) geratzen zen burdin masa gorria.

(B) agoa-kurrikak: *vnas agoa gorricas*...<sup>5,6</sup>

Burdinolan labetik agoa atera eta maneiatzeko erabiltzen ziren kurrikak.

(C) agoa-palanka: ... *agoa-palancas* ...<sup>1,5,6</sup>

Agoa maneiatzeko erabiltzen ziren palankak.

(D) agoa-tajadera: ... *la aguatajadera*<sup>6</sup>

Agoari zatiak ebakitzeko erabiltzen zen taiela.

(E) agorrola: *las herrerias que se llaman agor olea ... que llaman agorrola*<sup>7</sup>

Urtean zehar zenbait egun edo hilabetez ur faltagatik geldirik egoten zen burdinola.

(F) aldabarrak: *aldavarras buenas*<sup>5,6,8</sup>

Gabigunearen bogari erantsitako muturrak, ustez kojinete edo burukoetan biratzen zutenak.

(G) alidokiak?: ... *nuevamente alidoquiac*<sup>6</sup>

*Esanahi ezezaguna*, euskal “idoki” aditzarekin zerikusia izan dezakeena.

(H) altzaborra?: *en luengo alçaborra* ...<sup>9</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(I) andapara: *andapara* ...<sup>6</sup>

Burdinoletako ubidea.

(J) arragoa: *de arragoa*<sup>5,6,10,11</sup>

Burdinolatik kanpo lehenbizi mea txondorraren antzera egosiz egiten zen beroketa.

(K) asia?: *el fierro llamado asia* ...<sup>12</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(L) aska: *y ascaa de la agoa*<sup>4</sup>

Kaxa moduko ontzia.

(M) aspira?: *que son aspises*<sup>6</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(N) auspategia: ... *avspategui cunplida*<sup>6</sup>

Hauspoak zeuden gela.

(O) beraikia edo belaikia: *veraiquia buena*<sup>6</sup>

Zepa biltzeko erdian kirtena zuen ohola.

(P) bergamazoa: *que esta ciega?/18 el verganazo* <sup>13</sup>

Toberak zeharkatzen zuen labeko betarria gora luzatzen zuen horma.

(Q) bergaola?: "... *vergaola buena* <sup>5, 6</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(R) bero-kurrikak: *verogorricas* <sup>5, 6</sup>

Burdina goriarekin erabiltzeko kurrikak

(S) boga: *boga buena* <sup>5, 6, 14, 15</sup>

Gabigunari eusten zion burdinazko pieza.

(T) burdin erdira: *a burnin erdira*, <sup>16, 17, 18, 19, 20, 21, 22</sup>

Bi pertsonaren artean burdinola ustiatzeko era. Batak, adibidez, ikatza eta besteak burdin mea ekarrita, eta burdinola alokatzeko nahiz ofizialen gastuak erdi bana eginda, gero lortutako burdinak erdi bana jasotzeko kontratu mota.

(U) burdingela?: "... y *vurninguela*, y la dicha *burninguela* <sup>6</sup>

*Burdina edukitzeko gela? Burdina lortzen zen gela?*

(V) burniziak?: *con burnyçis nuevos* <sup>6</sup>

*Burdin ziriak? Esanahi ezezaguna*

(X) burriona?: ... *cepos del burrion*? <sup>6, 13</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(Y) burua: *antepara vurua*, <sup>23</sup>

Aurreko aldea, amaiera.

(Z) burukoak: *dos bururcos debaxo de los barquines* <sup>13</sup>

Bogari erantsitako bi aldabarrak biratzeko kojinetekak.

(AA) burukotegia?: *durmiente del bururcotegui de la rrueda* <sup>13</sup>

*Burukoen lekua?*

(AB) dendala: *debaxo del dendal* ... <sup>12</sup>

Gabigunaren atzeko muturra, dendal-harran errebote egiten zuena.

(AC) errotila?: ... *errotilla de los varqujnes* <sup>6, 13, 24, 25</sup>

*Esanahi ezezaguna.*

(AD) eskutajadera: ... *la escu tajadera* <sup>6, 14</sup>

Eskuz erabiltzeko taiela.

(AE) estolda: *abrir la estolda* <sup>2, 4, 6, 26</sup>

Burdinolako ura ateratzeko bidea.

(AF) gailurra: ... **gallurra cimera** <sup>5, 6, 15, 27, 28</sup>

Burdinolako eraikinaren edo beste edozeinen teilatuaren goiko habea.

(AG) gakoa: *las cacao* ... <sup>29</sup>

Pieza okertu eta punta zorrotzekoa, zerbaiti eusteko erabiltzen dena.

(AH) garastegia?: *poste que es en el su garastegui* <sup>13</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(AI) garranga: *ganchos de las garrangas* <sup>6, 14</sup>

Burdinazko puntak dituen kakoa.

(AJ) gezurraska: *la gueçurasca de la rrueda* <sup>13</sup>

Tutu bertikal edo inklinatua, txinbotik pasata aldaparoko ura gurpil hidraulikoaren karrametara bideratzen zuena.

(AK) gimela: "... la **guimela** <sup>6</sup>

Hauspo-ardatzean edo gabi-ardatzean zeuden mazukariak finkatzeko erabilitako ziriak.

(AL) goiara?: *con la goyara que esta/19 baxo del madero* <sup>13</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(AM) hauspaaurdia?: *eçeto la errotilla y/17 avspa aurdia* <sup>13</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(AN) hauspategia: *auspategia cunplido* <sup>14</sup>

Hauspoak zeuden gela.

(AO) kabea-kurrikak?: *vnas kabea gorricas* <sup>14</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(AP) konporta: *la conporta* <sup>6</sup>

Presan ura ubiderako hartzeko ate edo ataka.

(AQ) kopeta: *apretar la copeta del asta...* <sup>14</sup>

Zerbaiten edo norbaiten aurpegiaren goiko aldea.

(AR) kurrikak: *barquines, gorricas* ... <sup>30</sup>

Metalezko tresna, erdialdean giltzatzen diren bi piezaz osatua.

(AS) mailua: ... *dos mallus de fierro* <sup>14</sup>

Kolpeak jotzeko esku-erreminta, metalezko burua duena.

(AT) mailuka: *dos mallucas* <sup>6</sup>

Mailu txikia.

(AU) mandioa: "... *mandios de aldabarras* <sup>6</sup>

*Aldabarren ondoko ohola?*

(AV) nasa: *las açequias donde esta la **naça*** <sup>13</sup>

*Kaia? Arrantza-tresna?*

(AX) oratzar: *el fierro de **oraçar*** <sup>6, 32</sup>

Agoa (ikus Azkue hiztegia).

(AY) suara: ... ***suara*** ... <sup>6</sup>

Taiela

(AZ) suaraztegia: *de **suarasteguia*** <sup>6</sup>

*Taileaz lantzeko lekua?*

(BA) sutegia: *entre la fragoa o **suteguia*** ... <sup>13</sup>

Labea zegoen gela.

(BB) tajadera-kurrikak: *tajadera **gorricas*** ... <sup>14</sup>

Taiel-kurrikak.

(BC) tobera: *e dos **doberas**, todo de fierro* <sup>2</sup>

Hauspotik labera airea bideratzeko metalezko piezak.

(BD) totxoa: *de fierro **tocho*** ... <sup>31</sup>

Burdin lingotea, lehen ijeketaz arbatatua.

(BE) txirta: *vena de fierro llamada **chirta***, <sup>11</sup>

Mea xehea.

(BF) uara?: *çepos de las **huaras*** <sup>13</sup>

*Esanahi ezezaguna*

(BG) urarka: *vna/17 **varca***, <sup>23</sup>

Ubide edo aldaparoaren azken zatia, ura pilatzen den lekua.

(BH) uztarria: ***vztarriac*** <sup>6</sup>

Burdinazko uztaiak izan zitezkeen, hau da, zurezko ardatzak eta gabiguna indartzeko uztaiak.

(BI) xemen?: *y en las juntas vn **xemen*** ... <sup>9</sup>


*Esanahi ezezaguna*


(BJ) zepoak: ... *cepos del **burrion***? <sup>6</sup>

Gabitegiko kojineteak kokatuta zeuden kaxa eta hankak.



(BK) zinkuna?: ... ***çincunas*** <sup>6, 33</sup>


*Esanahi ezezaguna*











**Oharrak**

<sup>1</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Debako eskribautza. Eskribaua: Joan Martinez Gaintzakoa. Foliazioa: 111; 2/001881 paper sorta. Letra prozesala. (99a folioa).

*Joan Beltran Iraeta jaunak Joan Martinez Igartuakoari emateko Iraetako bere burdinolan zeukan tresneriaren inbentarioa.* 1525-XII-4. Iraeta.

<sup>2</sup> Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zarandona y Balboa. Pleitos olvidados. 2420/1. Gorteko letra eta letra prozesala. (79. or.).

*Valladolidko Nuestra Señora de Pradoko komentuan fraide jeronimotar zegoen Joan Lopez Altzolaraskoak bere koinatu Joan Martinez Olotzagakoa kontulariarekin Bekolako ondasunez Valladolidko Kantzelaritzan zuen auziaren jarraipena.* 1537-V-15/IX-12. Valladolid, Azpeitia.

<sup>3</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 254; 2/001608 paper sorta. Letra prozesala. (10a folioa).

*Martin Gartzia Lasaokoak Zestoako Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Lasaoko maiorazkoa sortuz egindako testamentua.* 1528-VI-27. Zestoa.

<sup>4</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 254; 2/001608 paper sorta. Letra prozesala. (101a folioa).

*Altzolarats jauregiko burdinolan hormak egin eta konpontzeko, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren izenean ama Domenja Lilik Zestoako Pedro Iribarrena harginarekin egindako kontratua.* 1527-III-4. Zestoa.

<sup>5</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 311. 2/001620 paper sorta. (292a, 292i, 293a folioak).

*Altzolarats jauregiko burdinola bertako San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatuak Aiako Domingo Ostolatari errentan eman eta honek hartzeko, bertako erremintak eta gauzak aztertuz egindako agiria, errenta aldia amaitzen zenean Domingok burdinola eta erremintak egoera berean itzul zitzen.* 1538-XI-26. Zestoa.

<sup>6</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola. Foliazioa: 345; 2/001625 paper sorta. Letra prozesala. (336a, 336i, 337a folioak).

*Zestoako San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatuak Aiako Martin Egari eta emazteari Altzolarats jauregiko burdinola errentan emanez bertako instalazio, tresna eta erreminten egoeraz egindako deskribapena, errenta aldiaren amaieran itzul zitzen.* 1544-XII-4. Aia.

<sup>7</sup> Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zarandona y Balboa. Pleitos olvidados. 2421/1. Gorteko letra eta letra prozesala. (342, 373. or.).

*Altzolarasko Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak bere koinatu Joan Altzolaraskoarekin Bekolako ondasunez Valladolidko Kantzelaritzan zuen auziaren jarraipena.* 1533-I-4/IV-3. Aizarna, Valladolid.

<sup>8</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola. Foliazioa: 345; 2/001625 paper sorta. Letra prozesala. (263. or.).

*San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatuak Aiako Martin Egari Altzolarats jauregiko burdinola hornitzeko beste 50 dukat maileguz emanda egindako agiria.* 1544-VII-23. Zestoa.

<sup>9</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 295. 2/001611 paper sorta. Letra prozesala. (123a folioa).

*Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak eta Debako Domingo Etxenagusia eta Joan Egaña harginek elkarki emandako ordainagiria, Getariako Garate mendiitik lehenago egindako kontratuan zehaztutako harriak (Liliko presarakoak) atera eta landu zituztelako. Zestoako Sastarrainen presa egiteko bi harginek Joan Perezekin egindako kontratua, landu beharreko harrien ezaugarri eta neurriak dituen. 1536-VI-14. Zestoa.*

<sup>10</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 295. 2/001611 paper sorta. Letra prozesala. (95a folioa).

*Debako Joan Olidenek eta Iraetako Fernando Sorazabal olagizonak egindako tratua, hark honi Beduako portutik 800 kintal burdin mea San Migel egunerako Iraetako burdinolara garraia ziezazkion. 1536-III-26. Zestoa.*

<sup>11</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola. Foliazioa: 345. 2/001625 paper sorta. Letra prozesala. (179a folioa).

*Zestoako Domingo Arronak Joan Paginori emandako obligazio-agiria, honek hari garraiatuko zizkion burdin mea eta egurrengatik zegokiona ordaintzeko konpromisoa hartuz. 1544-VII-20. Zestoa.*

<sup>12</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 360. 2/001621 paper sorta. Gorteko letra. (189a, 189i folioa).

*Zestoako San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak lizentziatuak eta Sebastian Artazubiaga zenaren Joan Bengoetxea eta Pedro Egaña suhiek Altzolarats jauregiko burdinolari buruz izan zituzten tratuen kontu guztien zerrenda. Zor eta hartzeko guztiak onartu ondoren, Joan Bengoetxeak eta Pedro Egañak San Joan Perezi emandako obligazio-agiria, zor guztiak ordaintzeko konpromisoa hartuz, eta elkarki emandako ordainagiria. 1539-V-6. Aizarna.*

<sup>13</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 254; 2/001608 paper sorta. Letra prozesala. (99a, 99i folioa).

*Altzolarats jauregiko burdinola konpontzeko, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren izenean ama Domenja Lilik Zestoako Joan Ezenarro zurgin-maisuarekin egindako kontratua. 1527-III-4. Zestoa.*

<sup>14</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 311. 2/001620 paper sorta. (292a, 292i, 293a folioak).

*Altzolarats jauregiko burdinola bertako San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak lizentziatuak Aiako Domingo Ostolatari errentan eman eta honek hartzeko, bertako erremintak eta gauzak aztertuz egindako agiria, errenta aldia amaitzen zenean Domingok burdinola eta erremintak egoera berean itzul zitzan. 1538-XI-26. Zestoa.*

<sup>15</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 344. 2/001619 paper sorta. Gorteko letra. (337i, 338a folioak).

*San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak lizentziatuak Altzolarats jauregiko burdinola 6 urterako Martin Izetari errentan emateko egindako kontratua. San Joan Perezek burdinola hornitzeko hurrengo uztailan Martini maileguz emango zizkion 300 dukaten obligazio-agiria. Martin Izetaren emazte Madalena Mirubiak San Joan Perezi emandako obligazio-agiria eta egindako zina, senarrak burdinola errentan hartzeko eta 300 dukat maileguz hartzeko egindako eskrituren berme gisa, dote bidez eramanda Izetan zeuzkan ondasunak hipotekatuz. San Joan Perezek*

*hurrengo uztailen Martin Izetari 300 dukat maileguz emateko egindako obligazio-agiria. 1537-XII-23. Aiako Urdaneta.*

<sup>16</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola. Foliazioa: 345: 2/001625 paper sorta. Letra prozesala. (151i folioa).

*Arroako Joan Zugastik Iraetako Maria Perez Idiakaitz-Lilikoa andreari emandako obligazio-agiria, "burdin erdira" Iraetako burdinolan hamar kintal ateratzeko ikatzak zerbitzeko eta Joanen 5 kintalak Maria Perezi emateko konpromisoa hartuz. 1544-VI-30. Arroa.*

<sup>17</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola. Foliazioa: 345: 2/001625 paper sorta. Letra prozesala. (46a folioa).

*Arroako Joan Olidenek Zestoako Domingo Arronari emandako obligazio-agiria, zenbait baldintza beteta 10 kintal burdina pletinatan ordaintzeko konpromisoa hartuz. Domingo Arronak Joan Olideni emandako ordainagiria, aipatutako 10 kintal burdinak alde batera utzita, gainerako zor osoa ordaindu egin ziolako. 1544-II-8. Zestoa.*

<sup>18</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 360. 2/001621 paper sorta. Gorteko letra. (253a folioa).

*Arroako Joan Martinez Baltzolaokak Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari emandako obligazio-agiria, 50 kintal burdina toxotan ordaintzeko konpromisoa hartuz. 1539-IX-12. Zestoa.*

<sup>19</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 360. 2/001621 paper sorta. Gorteko letra. (339a folioa).

*Arroako Fernando Igartzak eta Joan Igartza semeak Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari emandako obligazio-agiria, 15 kintal burdina toxo Liliko olatxoan emateko konpromisoa hartuz. Fernandok eta Joaneke Joan Perezi emandako obligazio-agiria, Azpeitiko Kontzejuari erositako basoetan 300 karga ikatz egiteko konpromisoa hartuz. 1539-XII-3. Zestoa.*

<sup>20</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 311. 2/001620 paper sorta. Gorteko letra. (157a folioa).

*Altzolarats jauregiko San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatuak Aiako Domingo Ostolatzari eta Domingo Zinkunegiri bere burdinola 4 urterako errentan emateko egindako kontratua. 1538-VI-28. Zestoa.*

<sup>21</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola. Foliazioa: 278: 2/001624 paper sorta. Letra prozesala. (205i folioa).

*Zestoako San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatuak eta Aiako Martin Egia olagizonak egindako kontratua, Altzolarats jauregiko burdinola 8 urterako errentan emateko. Bertan alde bakoitzak bete beharreko baldintzak zehazten dira. 1543-IX-8. Zestoa.*

<sup>22</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola. Foliazioa: 345: 2/001625 paper sorta. Letra prozesala. (51i folioa).

*Arroako Joan Larretzek Zestoako Domingo Arronari emandako obligazio-agiria, baldintza batzuk beteta 8 kintal burdina emateko konpromisoa hartuz. 1544-II-12. Iraeta.*

<sup>23</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola. Foliazioa: 345: 2/001625 paper sorta. Letra prozesala. (88a, 91a folioak).

*Zestoako Joan Amilibia hargin-maisuak Zestoako Esteban Eztiola eskribauaren bidez egindako testamentua. 1544-III-13. Zestoa.*

<sup>24</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 388; 2/001622 paper sorta. Letra prozesala. (Oharra: agiri originala kalteturik dago). (40a folioa).

*Aiako Domingo Ostolatza semeak aita Domingo Ostolatzarekin lehenago Altzolarats jau-regiko San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak lizentziatuarekin burdinolaz egindako errentamendukontratua eta maileguaren obligazio-agiria berronesteko egindako agiria. Domingo Ostolatza aita-semeek eta San Joan Perez lizentziatuak elkarrekin izandako tratuez egindako kontuak eta aiarrek lizentziatuari emandako obligazio-agiria. 1540-I-10. Zestoa.*

<sup>25</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 254; 2/001608 paper sorta. Letra prozesala. (70a folioa).

*Zestoako Domenja Lilik, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak semearen izenean, Martin Ondalde olagizonari emandako ordainagiria, Altzolarats jau-regiko burdinolaren errenta ordaindu egin ziolako. 1529-I-25. Zestoa.*

<sup>26</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 222; 2/001610 paper sorta. Letra prozesala. (131a folioa).

*Zestoako Domingo Zabalak Joan Amilibiari (hau Joan Abieta errezildarraren ordezkari izanik) emandako obligazio-agiria, Zestoako elizako kapera eraikitzeko kontuak eginda 16 dukat eta 7,5 txanpon zor zizkiolako. 1531-II-23. Zestoa.*

<sup>27</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 242; 2/001607 paper sorta. Letra prozesala. (Oharra: agiri honek goia eta alde bat kalteturik ditu). (226i folioa).

*San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak Altzolarats jau-regiko burdinola Martin Ondalderi sei urterako errentan emateko egindako kontratua. 1526-XII-30. Aizarna.*

<sup>28</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 222; 2/001610 paper sorta. Letra prozesala. (25a folioa).

*Arroako Maria Ruiz Narruondokoak Joan Olideni Narruondoko burdinola 6 urterako errentan emateko egindako agiria. 1531-IX-5. Arroa.*

<sup>29</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 311. 2/001620 paper sorta. Gorteko letra. (135a folioa).

*San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak lizentziatuak anaia Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari Zestoako Bergazelaiko sagastia saltzeko egindako agiria. Sagastiaren jabetza Joan Perezi emateko, lizentziatuak Joan Martinez Lilikoak apaizari emandako ahalordea. Joan Bengoetxeak eta Pedro Egañak San Joan Perez lizentziatuari emandako obligazio-agiria, hatek honen burdinola uzteko egindako kontuetan 17 dukateko zorra azaldu zitzaielako. Joan Martinez Lilikoak, Joan Perezen izenean, San Joan Perez lizentziatuaren Bergazelaiko sagastiaren jabetza Urbano Txiribogaren eskutik hartzeko egindako agiria. 1538-VI-7/8. Zestoa.*

<sup>30</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 388; 2/001622 paper sorta. Gorteko letra. (Oharra: agiri originala kalteturik dago). (247i folioa).

*Zestoako Esteban Akertza merkatariak Bizkaiko Arratiako Bediako Joan Basozabal errentariarekin egindako tratua, Estebanek etxea, arragoa eta hauspoak emanda Joaneke beste hiru ofizialekin bi urtean ilteak Estebanetzai egin zitzaizkion. 1540-VI-27. Zestoa.*

<sup>31</sup> Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Esteban Eztiola (zaharra). Foliazioa: 360. 2/001621 paper sorta. Gorteko letra. (253a folioa).

*Arroako Joan Martinez Baltzolakoako Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari emandako obligazio-agiria, 50 kintal burdina toxtotan ordaintzeko konpromisoa hartuz.* 1539-IX-12. Zestoa.

<sup>32</sup> AZKUE, R. M. Diccionario Vasco-Español-Francés. II. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1969. (123. or.).

<sup>33</sup> Eskerrak eman nahi dizkiot Oñatiko Protokoloen Agiritegi Historikoaren ardura-dun Ramon Martin Sukia jaunari, burdinoletako hainbat gairi buruz emandako argibide baliotsuengatik.

## Bibliografia

ARANA, I. *Burdina: errementariak eta perratzaileak*. Bergara, 2003.

ARANBURU AMILLETA, A. eta ETXEBERRIA ANDUEZA, B. *Burdinlariak. Larremetala 1*. Legazpi, 2005.

ARANBURU AMILLETA, A. eta ETXEBERRIA ANDUEZA, B. *Zeharrolak Urola Garaian*. Larremetala 2. Legazpi, 2007.

ARBIDE ELORTZA, I. eta beste. *Ferrerías en Legazpi*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1980. (Oso hiztegi interesgarria du amaieran).

AZPIAZU, J. A. *Euskal burdinoletako bizimodua*. Donostia, 2009.

CARRION ARREGI, I. M. *La Siderurgia Guipuzcoana en el siglo XVIII*. Gipuzkoa Donostia Kutxa. Bilbo, 1991.

DIEZ DE SALAZAR FERNANDEZ, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas (s. XIV-XVI)*. San Sebastián, Haranburu, 1983, 2 vols.

DIEZ DE SALAZAR FERNANDEZ, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)*. Donostia, 1997.

LEGORBURU FAUS, E. *La Labranza del Hierro en el País Vasco. Hornos, ruedas y otros ingenios*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo, 2000.

LOPEZ COLOM, M. M. eta URTEAGA, M. *Agorregiko burdinola eta errotak (Aia, Gipuzkoa)*. Arkeologia 2. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2002.

MOGEL, J. A. *Peru Abarka*. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1956. (Burdinoletako hiztegitxo du).

UGARTE, J. L. *Legazpi: burdinaren harana*. Peabideak. Legazpi, 2000.

URTEAGA, M. *Agorregiko burdinola eta errotak (Aia, Gipuzkoa)*. II Arkeologia esperimentak. Arkeologia 3. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2002.

VILLARREAL DE BERRIZ, J. B. *Máquinas hidráulicas de molinos y herrerías...* Madril, 1736.